

# ADITZ BEREZIAK:

**BEGIRATU**, begira, begiraten, begiratuko

1. Zerbait edo norbaitengana begiak zuzendu.  
Nori begiratu, NOR-NORI-NORK kasuan:  
Mikeli **begiratu diot**.  
Elkarri **begiratu zioten**.  
Nora begiratu, NOR-NORK kasuan:  
Atzera **begiratu zuten**.  
Gelan **begira ezazu**, ea aurkitzen duzun.
2. Babestu. NOR-NORK kasuan:  
**Begira ezazu** lapikoa.  
Lanean izaten naizen bitartean, amonak **begiraten ditu** umeak.  
Oso ondo **begiraten ditu** bere gauzak.
3. Norberaren burua babestu, kontuz ibili (Nondik begiratu). NOR kasuan:  
Mendi horretara bakarrik joatetik **begira zaitetz**.  
Zuhurra da eta kale ilun haietatik **begiraten da**.

**DEITU**, dei, deitzen, deituko. NOR-NORI-NORK kasuan (mendebaldean), eta NOR-NORK kasuan (ekialdean).

Irakasleak bilera batera **deitu gaitu**.  
Irakasleak bilera batera **deitu digu**.

**EKIN**, ekin, ekiten, ekingo. NOR-NORI-NORK kasuan:

Lehenbailehen lanari **ekingo diogu**.  
Bihar **ekingo diot** gailurra igotzeari.

**EMAN**, eman, ematen, emango

1. Zerbait norbaiten esku jarri. NOR-NORK kasuan:  
Eskatutako liburua **eman dit** liburuzainak.  
Alkateak baimena **eman du**.
2. Zerbaitetan hasi. NOR-NORI-NORK kasuan:  
Berria entzundakoan negarrari **eman zion**.  
Lapurrak ikusi eta ihesari **eman zioten**.  
Langabezian geratu ondoren edanari **eman dio**.
3. Gogoak eman. NOR-NORI-NORK kasuan:  
Gogoak **ematen didanean** egingo dut.

**ERAGIN**, eragin, eragiten, eragingo

1. Zerbait egitera bultzatu. NOR-NORI-NORK kasuan:  
Amak umeari den-dena **jan eragin zion**.  
Gertatutakoaz **hitz eragin didate**.
2. Mugitu, astindu. NOR-NORI-NORK kasuan:  
Besoari **eragin dio** protesta gisa.  
Eragiozu lapikoari; bestela erreko da eta.  
Erabili baino lehen eragin.
3. Gertarazi, ondorio bat ekarri. NOR-NORK kasuan:  
Euriteak uholdeak **eragin zituen**.  
Tabakoak minbizia **eragiten du**.

**ERASO**, eraso, erasotzen, erasoko. NOR-NORI-NORK kasuan:

Zuriek beltzei **eraso zieten**.  
Hesitik kanpo zeudenek barrukoei **eraso zieten**.  
Gauetz **eraso ziguten**.

**EUTSI**, euts, eusten, eutsiko. 1. Helduta, oratuta eduki. 2. Dagokion edo nahi den egoeran, mugitu, erori galdu edo suntsitu gabe, iraurarazi. NOR-NORI-NORK kasuan:

Tomasek zezenari adarretatik irmo eusten zion bitartean, besteek alde egin ahal izan zuten.  
Euts iezaiezu irmo zeure ideiei.

## HELDU, hel, heltzen, helduko

1. Toki batean izan, beste batetik bertaratu eta gero; eta, fruituak betetasunera iritsi. NOR kasuan:  
Aurten euskaldun bat **heldu da** Anapurnara.  
Dagoeneko sagarrak heldu dira.
2. Norbaiti zein zerbaiti eutsi alde egin ez dezan. NOR-NORI-NORK kasuan:  
Irakasleak lepotik **heldu zion** ikasleari.  
Hankatik heldu nion arren, ihes egitea lortu zuen.
3. Intsekturen batek hozka egitea. NOR-NORI-NORK kasuan:  
Gaur gauean arkakusoek heldu didate.  
Eltxoek heldu zioten lakuan.

## IRITZI, iritz, irizten, iritziko. NOR-NORI-NORK kasuan:

Ondo **iritzi nion** bere proposamenari.  
Gaizki **iritzi zion** aitak semearen janzkerari.

## ITXARON (itxoin), itxaron, itxaroten, itxarongo

1. Objektua badin badago, eta bereziki "norbaiten zain" egotean, NOR-NORI-NORK kasuan:  
Egun osoa **itxaron zizuten**, baina ez zinen azaldu.  
Amari **itxaron zioten**.
2. Objekturik ez dagonean, NOR-NORK kasuan:  
Egun osoan **itxaron zuten**, baina ez zinen azaldu.  
Ama etorri arte **itxaron zuten**.

## JARRAITU, jarrai, jarraitzen, jarraituko

1. Norbaiten zein zerbaiten atzetik joan. NOR-NORI kasuan (forma zaharra), ala NOR-NORI-NORK kasuan:  
Txakurra katuari **jarraitzen zaio**.  
Txakurrak katuari **jarraitzen dio**.
2. Egoera edo jarrera batean iraun. NOR-NORK kasuan:  
Lanean **jarraitzen du**.  
Berean **jarraitzen du** buru gogor.

## LAGUNDU, lagun, laguntzen, lagunduko

1. Norbaitekin bera doan tokira joan. NOR-NORI-NORK kasuan:  
Zure etxeraino **lagunduko dizut**.
2. Norbaiti zerbait egiten ari denean laguntza eman. NOR-NORI-NORK kasuan:  
Aitak semeari etxerako lanak egiten **lagundu zion**.  
NORI zehaztu gabe dagoenean, NOR-NORK kasuan:  
Goiz jaikitzeak zoriotsu izaten **laguntzen du**.

## SEGITU, segi, segitzen, segituko. NOR-NORK kasuan:

Hamabiak arte **segituko dugu** lanean.  
Horrela jokatzuz gero, **ez duzu** lanpostu horretan **segituko**.

## UTZI, utz (utzi), uzten, utziko

1. Norbait zein zerbait toki batean jarri. NOR-NORK kasuan:  
Ogia mahai gainean **utzi dut**.  
Seme-alabak eskolan **utzi ditu**.
2. Norbait, beste norbait edo zerbait tokian edo egoera jakin batean gelditzen dela, bertatik joan. NOR-NORK kasuan:  
Senarra egunkaria irakurtzen **utzi du** eta erosketak egitera joan da.  
Gogaituta Pello erretzen utzi eta gelatik alde egin dugu, ito beharrean.
3. Jarduera bat gehiago ez egin. NOR-NORI-NORK kasuan:  
Erretzeari **utzi diot**.  
**Utz iezaiozu** lelokeriak esateari eta lanean hasi.
4. Baimena eman. NOR-NORI-NORK kasuan:  
Edukazioz eskatu egin digu eta erretzen **utzi diogu**.  
Ama, telebista ikusten **utziko didazu**.